



Lerrootan jaso ditugun arau eta gomendioak egun osasun-zerbitzuek zehaztutakoetan oinarritzen dira eta, horren ondorioz, unean uneko egoerara egokitu beharko ditugu, etengabe. Horrez gain, geure jarduera ehunka lokaletan egiten dugunez, nork bere benetako egoerara moldatu beharko ditu zehaztapenok, betiere osasuna eta prebentzioa ardatz.

PREBENTZIO-NEURRIAK

0.- Neurri orokorrak

- Eutsi pertsonen arteko distantziari **(1,5 metro), eta jantzi maskara.**
- Garbiketa-desinfekzioa: egoitzak eta eskuak sarri garbitu behar dira. Desinfektatu lan-tresnak, erabiltzen diren bakoitzean. Instalazio guztiak **maiz garbitu eta desinfektatuko** dira.

1.- Harrera egiteko neurriak

- Euskaltegi bakoitzak antolatuko du, osasun-arauak eta bertako harrera-espazioak kontuan hartuta, bezeroak banan-banan artatzeko modua (sarrera, kartelak, hitzorduak...), erarik seguru eta eragingarrienean. Galde ezazu edota hurbil zaitez gertuen duzun euskaltegira.
- Euskaltegi bakoitzak erabakiko du bere arreta-ordutegia, nork bere egoerara egokitu ahal izateko eta uneko beharrei erantzuteko.
- Babes-neurri zehatzak:
 - Maskara beti jantzi, eta gutxienez 1,5 metroko distantziari eutsi.
 - Hidrogela eskura izan.
 - Pertsonak banaka artatu.
 - Harrera-gunearen garbiketa bereziki zainduko da: lanean hasi aurretik eta amaitu ostean, baita pertsona bakoitza artatu eta gero ere.
 - Material guztia bisitariaren eskura izango da, mahai gainean (boligrafoak, informazio-orriak, matrikula-fitxak...) eta desinfektatu egingo da pertsona bakoitzak erabili ostean.
 - Eskuak maiz garbitu behar ditugu.

2.-Antolaketarako eta babes kolektiborako neurriak

Pertsonen sarbideak eta fluxuak:

Gure euskaltegietan, **sarrera eta irteera ordenatuta** egon beharko dira; eta, behar izanez gero, mailakatuta ere bai, **pilaketak saihesteko** moduan. Horretarako, zentroko eraikin eta



instalazioetarako sarrerak eta irteerak **seinaleztatuta** egongo dira, pertsonen zirkulazioa errazteko.

Korridoreetan eta igarobide komunetan, **1,5 metroko** segurtasun-distantziari eutsita zirkulatuko da jendea; horretarako, eta gune horien neurrien arabera, beharrezko zirkulazio-bideak antolatuko dira, bai noranzko bakarrean, bai bi noranzkoetan. **Ahal** den lokaletan, **sartzeko eta irteteko fluxuak desberdinak** izango dira, kongestioak saihesteko. Fluxu- eta zirkulazio-noranzkoak behar bezala adieraziko dira, kartelen, lurzoruko lerroen edo antzeko sistemaren baten bidez.

Lokalen edukiera eta erabilera:

Sartzeko baimena duten gune eta lokalen gehieneko edukiera hauxe izango da: horiek erabiltzen dituzten pertsonen artean **1,5 metroko** segurtasun-distantzia mantentzea ahalbidetzen duena.

Zerbitzu higienikoak modu **indibidualizatuan** erabiliko dira; konketaren eremu komunak partekatzea saihestu egingo da, eta itxaron bitartean eutsi egingo zaio pertsonen arteko distantziari.

Lokalen **aireztapen naturala eta mekanikoa areagotuko** da, barruan airea berritzen laguntzeko.

Higiene-ekipamenduak:

Gela¹ bakoitzak eskuak garbitzeko eta desinfektatzeko **gel hidroalkoholikoa** izango du, bai eta **erabili eta botatzeko materiala** (paperezko zapiak) eta **ontzi edo paperontzi tapadun bat** ere. **Beharrezko materiala eskuragarri** dagoela ziurtatuko da, hala nola erabili eta botatzeko **zapiak, maskarak, eskularruak, tapa zein pedala dituzten ontziak**, garbitzeko eta desinfektatzeko materiala eta produktuak, soluzio hidroalkoholikoak, etab.

Ikastaldetik ikastaldera, ikasgelak honela garbituko dira:

Gela batean eskola edo jarduera amaitutakoan, irakasleak/AEKideak mahaia eta aulkiak garbituko ditu, hurrengoentzat prest eta garbi egon daitezen. Gela aireztatzen utziko da.

Jarduera bat baino gehiago jarraian eginez gero, gela egoki aireztatu behar denez, batetik bestera 15 minutuko tarteak utziko da gutxienez.

1 Ikasgela, bulegoa, irakasle-gela, bilera-gela...



2.- Banakako prebentzio-neurriak

PCR proba positiboa gertatuz gero: sintomak antzeman dituztenek edo gaixo sintomatiko batekin harreman estua izan dutenek **etxean** geratu beharko dute, euskaltegira joan gabe. Lehen mailako arretako zentrotik edo prebentzio-zerbitzutik (kasuaren arabera) adieraziko zaizkie bete beharreko jarraibideak, bai eta jarraipena egin ere.

Pertsona guztiek higiene pertsonaleko neurri zorrotzak hartu beharko dituzte:

- **Eskuak maiz garbitu**, urez eta xaboiak edo soluzio hidroalkoholikoekin. Horretarako, gelek eta erabilera-eremuek gel hidroalkoholkoa hartzeko gailuak izango dituzte sarreran. Eskuak behar bezala garbitzeko, komeni da azazkalak motz edukitzea eta **eraztunik edo eskumuturrekorik ez** erabiltzea.
- **Saihestu begiak, sudurra eta ahoa** ukitzea.
- Erabili eta botatzeko **paperezko zapiak** eraman.
- Eztul edo doministiku egitean, ondo estali ahoa eta sudurra ukondo tolestuarekin edo erabili eta botatzeko zapi batekin, arnas jariakinei eusteko, eta berehala bota zapi hori paperontzi edo **edukiontzi espezifikoko** batera.

Uneoro mantendu beharko da pertsonen arteko **1,5 metroko segurtasun-distantzia**. Higiene-**maskarak** (UNE 0064-1:2020), kirurgia-maskarak (UNE-EN 14683:2019) edo segurtasun-maila handiagokoak erabiliko dira jarduera guztiak egin bitartean.